# Kultur Agenda

Urtarrila
Otsaila
Agoitz
2025

948 336 690 - 600 445 238 · cultura@aoiz.es · Instagramen eta Facebooken gaude




www.agoitz.eus

Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## urtarrila

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

## otsaila

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | | |

# urtarrila

**3** **Antzerkia.** *Zootropus Cirkus.* Zootropo Teatro

**5** **Kabalgata**

**8** **Era Txokoa.** Trasbase tailerra

**10-31** **Erakusketak.** *Isurkari*. Agoizko Argazkilari Taldea

**17** **Proiektu partehartzailearen aurkezpena**
"Gendulain-San Roman Ermita: Bake Lekua"

**19** **Antzerkia.** *Escenícas.* Kukúmix Teatro

**26** **Zinema.** *Living Kultur*. Marga Gutiérrez

# otsaila

**2** **Antzerkia.** *Far West.* Yllana

**4** **Santa Agata**

**12** **Era Txokoa.** Plastilina tailerra / Argi eta ohial tailerra

**16** **Zinema.** *El que no ve* + *Why*. Natxo Leuza

**22** **Musika.** Musika Banden Topaketa

# martxoa

**1 & 4** **Inauteriak**

PAPER EKOLOGIKOA %100 BIRZIKLATUA

DL / LG NA 544-2016

# Antzerkia

TEATRO ACCESIBLE
BUCLE MAGNÉTICO SONIDO AMPLIFICADO



## *ZOOTROPUS CIRKUS*

### ZOOTROPO TEATRO

**3 urtarrila,** ostirala. **18:30**
**Kultur Etxea. 5€**

Hizkuntza: gaztelera
Gomendatutako adina +6 urte. 60´

Bere zeremonia-maisuaren oroitzapenen bidez iraganaren zirkura eramaten zaituen ikuskizuna. Zuzeneko musikarekin eta bizia hartzen duten objektuekin, nostalgiaz eta irudimenez beteriko omenaldia da, antzinako zirkuaren mirariak berpizten dituena.




## *ESCENÍCAS*

### KUKÚMIX TEATRO

**19 urtarrila,** igandea. **19:00**
**Kultur Etxea. 3€**

Gazteak eta helduak
70´

*ESCENÍCAS*, bai, tildekin, obra bustitzen duen navarrensis izpiritua nabarmentzeko. Zazpi istorio dira, Alfredo Sanzol zuzendari nafarrak idatzitako “En la Luna” eta “Risas y Destrucción” liburuetatik ateratakoak. Laneko elkarrizketen umore samur, zentzugabe eta irudikorrak irriak eta barre-algarak pizten ditu. 80ko hamarkadan girotuta dago, gure historia hurbileko parte den trantsizio garai nahasi hartan, alegia.




## *FAR WEST*

### YLLANA

**2 otsaila,** igandea. **19:00**
**Kultur Etxea. 10€**

Adin guztietarako
90´

Nekazari baketsu eta xume batek emaztegaiari harrera egiten dio, mendebalde urruneko tren geltoki hautseztatu batean. Lehen musua eman baino lehen, baina, bi gaizkilek bahitzen dute. Yllanak mendebaldeko filmen mundua omentzen du ikuskizun honekin, gure irudimena hainbeste suspertu eta jolastarazi zutenak: bere heroiak, bere bilauak, bere mugak eta horiei aurre egitera ausartu ziren gizonak.

# Zinema




## *LIVING KULTUR*

Zuzendaria: Marga Gutiérrez

Filmoteca de Navarra
Nafarroako Filmoteka

**26 urtarrila,** igandea. **19:00**
**Kultur Etxea. 3€**

Generoa: dokumentala
Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz. 63’

**Aurkezpena eta solasaldia Marga Gutiérrez zuzendariarekin.**

Ondare materiagabean zehar egindako pertzepziozko eta zentzumenezko bidaiaren inguruko antzinako kultur herentzia islatzen duen proiektua da. Berrogeita hamar adierazpen biltzen ditu: ahozko tradizioa, jolasak, inauteriak, antzezpen profano eta erlijiosoak edo dantzak. Hirurogeita hamar elkarrizketa baino gehiago egin dira haien benetako protagonistekin, maitasunagatik, herentziagatik edo harremanagatik jasotako herentzia munduari oparitzen diotenak.

## NATXO LEUZAri ESKEINITAKO SAIO BEREZIA “EL QUE NO VE” + “WHY”

**16 otsaila,** igandea. **19:00**
**Kultur Etxea. 3€**

Filmoteca de Navarra
Nafarroako Filmoteka

**Aurkezpena eta solasaldia Natxo Leuza zuzendariarekin.**




### *EL QUE NO VE*

Dokumentala. Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz. 25’

Montxo Rejanok oso jende gutxi egon den tokitik hitz egiten digu, erabateko iluntasunetik. Bere bizitza hondatu zen, 50 urte zituela, lan-istripu bat izan zuenean. Bere esperientziak beste aldean, inork ikusten ez zaituen lekuan, sentitzen dena islatzen du.

### *WHY*




Ukrainera, ingelesa. Jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin. 22’

Zergatik gerra hau Ukrainan? Zergatik suntsitzen dute dena? Zergatik nago beldur? Ez al ziren gure anai-arrebak? Zergatik hil nahi gaituzte? Zergatik hainbeste gorroto? Zergatik hiltzen dituzte gure seme-alabak? Zergatik kentzen digute dena? Zergatik egin behar dut ihes? Zergatik norbaitek erabaki du dena ezabatzea?

# Erakusketak

asteartetik
larunbatera
**18:00-20:00**

## *ISURKARI*
### AGOIZKO ARGAZKILARI TALDEA




**10-31** **urtarrila**
Areto Nagusia

Aurten, argazkilari taldearen lanak likidoaren izaeraren eta naturako likidoen ingurukoak dira. Bilduma bakoitzak gogoeta egiteko gonbitea egiten du.

**Inaugurazioa eta bisita gidatua:**
Urtarrilak 10 | ostirala | 19:00

# Musika

## MUSIKA BANDEN TOPAKETA

**22** **otsaila,** larunbata. **18:30**
**Kultur Etxea. 3€**

Adin guztietarako

Topatuko dira:
Joaquin Maya Musika Eskolako (Iruñea) Big Banda
Kithara Musika Eskolako (Iruñea) Big Banda
Agoizko Musika Banda

# Jarduerak euskaraz

## ERA TXOKOA JARDUERAK

**OHARRA:** familia-tailerrak dira, eta, beraz, familiak presente egon behar dira tailerra bukatu arte.

**Urtarrilak 8, asteazkena | 16:30-17:30 | Euskararen Etxea**
**Trasbase tailerra** (1-3 urte bitarteko haurrentzat)

**Otsailak 12, asteazkena | 16:30-17:30 | Euskararen Etxea**
**Plastilina tailerra** (2-3 urte bitarteko haurrentzat)
**Argi eta ohial tailerra** (0-2 urte bitarteko haurrentzat)

Nafarroako Gobernua

# Eguberriak

**Urtarrilak 5, igandea. 19:00**

**KABALGATA.**
**EKIALDEKO ERREGE MAGOAK**

Ohiko ibilbidea: San Jose Adinekoentzako Egoitzatik hasi eta frontoian bukatuko da.

***Asociación Cabalgata Aoiz- Agoizko Kabalgata Elkartea**
Agoizko Kabalgata Elkartea itsulapikoak jarriko ditu herriko dendatan, elkartearen aldeko dirua lortzeko.

# Beste Jarduerak



**“GENDULAIN-SAN ROMAN ERMITA: BAKE LEKUA” PROIEKTU PARTE-HARTZAILEAREN AURKEZPENA**

HIDEA ETA AGOIZKO UDALA

**Urtarrilak 17 | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea**

---



**SANTA AGATA**

**otsailak 4 | asteartea | 18:00**

Ibilbidea herrian barna.

---

**INAUTERIAK**

**Martxoak 1 eta 4**

Kartela hedatuko da ohiko kanalen bidez.

# Kultur Etxea

Jendearentzako arreta, astelehenetik ostiralera (10:00-14:00)

948 336 690 - 600 445 238 cultura@aoiz.es Instagramen eta Facebooken gaude

www.aoiz.eus